# munduak guztiontzat beharko luke

## *GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA*

Ane eta Patakon pilotalekura joan dira palan jokatzera, baina Patxi ari da jokatzen eta zain daude, pilotalekua noiz libratuko. Harrituta daude, sekula ez baitute ikusi inor gurpil-aulkiarekin palan jokatzen.







Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak lan handia egiten du kirola ezintasunen bat dutenen eskura jartzeko. Kirolak gorputza eta burua sasoiko izaten laguntzen du.
EA MOLDATUKO GAREN? PARETAK BERDIN-BERDIN BUELTATZEN DU PILOTA ZUK EDO NIK BOTA, EZTA?
BAI, HORRETAN ARRAZOIA DUZU.
TIRA PATXI, EGIN ZUK SAKEA.
PAN!
EDERRA ASTINDUA EMAN DIGUZUNA! EZ NUEN USTE HAIN ONDO MOLDATUKO ZINENIK.
NIRE GURPIL-AULKIARI BEGIRATU BEHARREAN NIRE BESOETAKO GIHARREI BEGIRATUKO BAZENIETE....
BADAKIT, ZU PAILAZO MALABARISTA ZARA!


BAI, LEHEN PAILAZO MALABARISTA NINTZEN.
ETA ORAIN EZIN DUZU, EZTA?
ORAIN ERE EGIN DITZAKET MALABARISMOAK, BAINA EZ DUT DENERAKO DENBORARIK IZATEN. ORAIN KIROLA EGITEN DUT TOPERA; PALA, TENISA, PADELA, SASKIBALOIA, ATLETISMOA...
ZER GERTATU ZITZAIZUN? ZERGATIK ZAUDE GURPIL-AULKIAN?
AUTO ISTRIPU LARRI BAT IZAN NUEN ETA BIZKARREZURRA MINDU NUEN. EZINGO NAIZ BERRIZ OINEZ IBILI.
ZE GAUZA TRISTEA, EZ?
Ezintasunen bat duten lagunak kirol desberdinetan aritu
daitezke. Horretarako baldintzak eta azpegitura egokiak
besterik ez dituzte behar.




## Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa

Federación Guipuzcoana de Deporte Adapatado

Ezintasuna duten pertsonen artean kirola promozionatzeko eta zabaltzeko xedea du.



Ezintasuna duen kirolaria bere ingurune naturalean integratzeko laguntza eskaintzen du.



Kirolariei, jarduera teknifikatuak eta profesionalizatuak eskaintzen dizkie.



**Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa**
Anoeta Pasealekua, 5 - 20014 Donostia
Telefonoa: 943 46 25 14
Emaila: info@gkef-fgda.org